

“LIBURUAK GOZAGARRI” PROGRAMAREN DEIALDIA

Iruñean, 2022ko azaroaren 15ean

Zuzendari jauna /andrea:

D ereduko Haur eta Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleen artean “**Liburuak gozagarri**” programaren **2023ko deialdia** zabalduko dugu. Helburua da euskal idazleen lana eta esperientziaren bitartez, ikasleek irakurzaletasuna garatu eta euskararekin eta euskaraz literaturarekin goza dezaten. **Euskara Atalak** eskainiko du programa, Euskal Idazleen Elkartearen bitartez.

Programaren arabera, gelan aukeratutako idazlearen liburua irakurri eta landutakoan, ikasleek saio bat izanen dute liburuaren egilearekin zuzenean. Saioan bertan, idazlea aurkeztutakoan, ikasleek idazlearekin honen lanaz, esperientziaz eta liburuaren gainerako bitxikeriaz hitz egiteko aukera izanen dute. Dena bukatutakoan, jardueraren balorazioa egitea ezinbestekoa izanen da.

Eskaera egiteko epea azaroaren 15etik 30era bitartekoa izanen da.

Saioak **urtariletik ekainera bitarte** eginen dira, eta saioen iraupena 50 minutukoa izanen da.

Ekimen honetan parte hartu nahi izanez gero, izena eman beharko duzu jarraian duzun galdetegian (<https://idazleak.eus/eu/irakurleekin/eskoletan/nafarroan>). Behin izena emateko epea bukatuta, zure ikastetxearen eskaera onartzen bada, Euskal Idazleen Elkarteak zuekin harremanetan jarriko da dena ongi antolatzeko.

Hau zabaltzen laguntzeagatik, jaso ezazu gure agurrik beroena.

Euskara Atala